

Abenduaren 25ean
JAUNAREN JAIOTZA (C)
 Festaburua

EGUNEKO MEZA

Otoitza

Jainko Jauna, miragarriak egin dituzu,
 gizakia zeure antzeko eginez,
 eta miragarriagoak,
 Kristoren bidez berau goimailara goratuz;
 iguzu, gizatasunean gurekin bat egin den zure Semeak,
 bat egin gaitzala Berarekin jainkotasunean.
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Is 52, 7-10

*Lurbiraren bazter guztiek ikusiko dute
 gure Jaungoikoaren salbamena.*

Isaias Profetaren liburitik

Bai ederrak direla mendi gainetan,
 bakea hotsegiten duen mezulariaren oinak!
 Berri ona zabaltzen
 eta salbamena iragartzen dabilenarenak!
 Sioni «gure Jaungoikoa errega da»
 esaten dionarenak!
 Entzun: zure zaintzaileak oihuka ari dira,
 irrintzika, guztiak batera;
 aurrez aurre ikusten baitute Jauna,
 berriro Siona datorrela.
 Ekin kantari, guztiok batera,
 Jerusalemgo horma zahar eroriok;
 poztu baitu Jaunak bere herria;
 eta berrerosi du Jerusalem.
 Herri guztien aurrean erakutsi du Jaunak
 bere beso santuaren indarra;
 eta lurbiraren bazter guztiek ikusiko dute
 gure Jaungoikoaren salbamena.

ERANTZUN SALMOA: Sal 97, 1. 2-3ab. 3cd-4. 5-6

R/. **Ikusi dute lur muga denek
 gure Jainkoagandiko garaipena.**

Kanta Jaunari kantu berri,

egin baititu hainbat harrigarri.
Bere eskuinak eman dio garaipena,
bere beso santuak. R/.

Ezagutarazi du Jaunak Beragandiko garaipena,
agertu du atzerrien aurrean bere zuzentasuna.
Oroitu da bere maitasunaz,
Israel etxeari dion leialtasunaz. R/.

Ikusi dute lur muga denek
gure Jainkoagandiko garaipena.
Lur osoa, egiozu txalo Jaunari,
egin oihu eta irrintzi, egin eresi. R/.

Eresi Jaunari kitarakin,
kitara eta salteri ozenarekin;
turuta eta adar hotsean,
egin txalo errege den Jaunaren aurrean. R/.

II. IRAKURGAIA: He 1, 1-6

Jainkoak Semearen bidez hitzegin digu.

Hebertarrei egindako epistolatik

Askotan eta era askotara hitzegin zien Jaungoikoak Profeten bidez aspalditik gure arbasoei; eta azkenak diren egun hauetan, Semearen bidez hitzegin digu. Seme hau egin zuen gauza guztien oinordeko; eta Beraren bidez egin zuen mundua ere.

Bera da, Aitaren aintzaren argi distiratsu eta Haren izatearen irudi. Berak eusten die gauza guztiei bere hitz indartsuz. Eta bekatuen garbikuntza egin ondoren, goienean Guztiz Haundiaren eskuin aldean jarririk dago: zenbat eta aingeruak baino goragoko izena jaso duen, hainbat eta haiek baino gorago jarria.

Izan ere, zein aingeruri esan dio inoiz:

«Nire Seme zara Zu;

Nik zaitut gaur Zu sortu»?

Eta beste behin:

«Aita izango nau Ni, Hark

eta Hura Seme izango dut Nik»?

Eta beste behin, bere Semea munduan sartzerakoan, honela dio:

«Gur bezate Bera

Jaungoikoaren aingeru guztiek».

EBANJELIOA: Jn 1, 1-18

Aleluia

R/. Aleluia.

V/. Egun santu bat zabaldu zaigu:

zatozte, herriak; gur ezazue Jauna;

argi haundi bat jaitsi da gaur lurrera. R/.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Hasieran bazen Hitza;
eta Hitza Jaungoikoarekin zen;
eta Jaungoiko zen Hitza.

Hitz hau haiseran Jaungoikoarekin zen.
Dena Hitzaren bidez egina da;
eta egindakoetan ez da ezer Hura gabe eginik.

Harengan zen bizia.

Eta bizia gizakien argia zen.

Argiak ilunbetan argi egiten du;
baina ilunak Hura ez zuen onartu.

[Agertu zen gizon bat, Jaungoikoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen: argiaren aitormena egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Bera ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.] Hitza zen, mundura etorritako gizon oro argitzen duen egiazko argia.

Munduan zegoen;

eta mundua Haren bidez egina da;
baina munduak ez zuen ezagutu.

Bereetara etorri zen,
eta bereek ez zuten onartu.

Onartu zuten guztiei, berriz,
Jaungoikoaren seme-alaba izateko eskubidea eman zien,
Haren izenean sinesten badute.

Hauek ez dira odoletik sortu,
ez haragiaren nahieratik,
ezta gizakiaren nahieratik ere;
Jaungoikoarengandik baizik.

Eta Hitza haragi egin zen,
eta gure artean jarri zuen bizilekua;
eta geuk ikusi dugu Haren aintza,
Aitaren Seme bakarrari dagokion aintza,
graziaz eta egiaz betea.

[Joanek Hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen, nik esan nuen Hura; Nire ondoren datorrena nire aurrean jarria izan da, ni baino lehenagokoa baitzen».

Eta Haren betearen betetik,
grazia graziaren gain hartu dugu guztiok.

Legea Moisesen bidez emana izan da; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira.
Jaungoikoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen Seme bakarrak eman digu Haren berri.]

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna, Eguberri jai hauetan,
Zurekin baketzen gaituen oparia,
hau baita Zuri gizakiak eskain diezazukeen gorespen betea.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Eguberrialdikoa

Jaunartze ondorengoa

Jainko guztiz errukitsua,
munduaren Salbatzaileak, gaur jaioz,
Jainkoaren seme-alaba sortarazten gaituen bezala,
hilezkor ere egin gaitzala.
Errege bizi baita.